

Gure Mauriziei aitortza



BESTE MODURA

Eskatu Nafarroa erdi eta hegoaldeko
oliba-olio birjina estra, kontserbak,
ardoa, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

DENONA DA ONURA

Martxoak 10-26 / errigora.eus



LANBIDE
HEZIKETA
FORMACION
PROFESIONAL

Ate irekiak MARTXOAK 22

Eman izena!



ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Mantentze-lan Elektromekanikoa

GOI MAILA

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

ESPEZIALIZAZIOAK

- Fabrikazio Aditiboa
- Errendimendu handiko mekanizazioa
- Makinen doitze eta prestakuntza aurreratua
- Elkarlaneko Robotika (eskatuta)

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA (eskatuta)

- Automatizazio Industrialen Muntaketa eta Mantentzea



HEZIKETA ZIKLOAK

ETORKIZUNAREN FABRIKATZAILEAK

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Ko-laboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez, Iker Lauzirika, Arkaitz Uranga, Naia Aizpurua, Andoni Segundo **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



x.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet



mastodon.us/@barren@tkm.eus

Asier Guisasola Iñiguez

Portu, Ubide eta bideetako ingeniaria

Etorkizunaren neurriak



"Erromatarrek egin zuten moduan, ondo neurtzea garrantzi handiko gaia izan beharko litzateke"

Neurtzen ez dena ezin da hobetu", hala esaten zuen William Thompson Kelvin fisikari eta matematikari britaniarrak. Hori ondo baino hobeto zekiten erromatarrek. Garai hartako ingeniariet bide berriak diseinatu eta eraiki zituzten, bide-sare itzel bat osatuz, eta horri esker, inperioko herriak elkarrekin komunikatu eta inperioaren beraren egitura sendotu zuten. Estrata horiek eraikitzekeo lurrazalaren geometria, forma eta altueren mapa topografikoak marraztu behar izan zituzten. GPS, laser eta horrelakorik ez zegoen orduan. Distantziak eta angeluak neurtzeko greziar garaiko gailuak hobetu zituzten. A puntutik B puntura joateko biderik merkeenak eta aldapa txikienekoak kalkulatu eta diseinatzeko gai ziren ordura arteko ezagutza trigonometriko, geodesiko eta matematikoak erabilia. Herrien arteko distantzia neurtzeko milia bakoitzeko harrizko mugarría jartzen zuten bide ertzean. Europa osoan zehar eraikitako bide-sare itzelak abantaila geostrategikoa eman zion Erromatar Inperioari. Bestelako herrialdeak konkistatzeko eta komertzio eta garapen ekonomiko oparora lortzeko balio izan zien, besteak beste.

Arlo indibidualen, erakunde mailan edota sozialki hobetzea nahi badugu, erromatarrek egin zuten moduan, ondo neurtzea garrantzi handiko gaia izan beharko litzateke gurean. Egungo kalkulu baliabide aurreratuekin, estatistika zientziak eta datu baseekin ia-ia nahi beste kontu atera daiteke. Hezkuntzan, adibidez, irakasle kopurua: dauzkagunak, joango direnak eta hurrengo urteetan zenbat beharko ditugun. Ikasleekin beste hainbeste. Hirigintzan, etxebizitzekin: ditugunak, konpondu edo birgaitu beharrekoak eta zenbat eraiki beharko diren. Osasungintzan, gaur zenbat erizain eta sendagile ditugun eta hurrengo urteetan zenbat beharko ditugun. Politikan, zenbat kargu politiko ditugun eta zenbat beharko ditugun (edo ez).

Era horretara, bestelako herrialdeekin alderatu ahalko gara hainbat esparrutan. Eta konkistatzaile izan nolabaitko abantaila estrategikoaren jabe bagara. Edo hala ez bada, gutxienez aurretiaz jakin konkistatuak izango gara.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Elgoibar Ikastolako kideok oso eskertuta sentitzen gara aurtengo Euskal Inauterietan eta XXV. Pilota egunean era batera edo bestera kolaboratu duzuen guztiokin: Elgoibarko Udala, Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskola, Karakate enpresa, Erbuze Konpartsa, Haritz Euskal Dantzari Taldea, Paki Ferrero, Mari Jose Estibaritz, Izaskun Estibaritz, OriasportWear, Ados pilota, Aspe pelota, Baiako, Otero pilotagilea, Euskadiko Euskal Pelota Federazioa, Casa Astigarraga, Iriondo Kirolak eta Lagunak Pilota Elkarteko Aitor Bergua.

Elgoibarko herritarrei ere, eskerrik asko! Zuen parte-hartze eta ilusioari esker ekintza borobilak izan dira.

Amaitzeko, gure komunitatetik zuen ale-txoa jarri duzuen guztioi, zorionak! Kilometroei esker herrigintzan, elkarlanean eta euskararen erabileran aurrerapausoak emateko asmotan abiatu genuen ikasturtea, eta azken bi asteetan Elgoibarko Kalegoen plazak lan-kidetza usaina eta euskara soinua izan ditu. Bejondeigula!

Jarraitu sokari ematen, elkarrekin euskarara salto egin dezagun. Eta prestatu hankak apirilaren 6an XXX. Jose Gurrutxaga Krosean saltaka egiteko!

Elgoibar ikastola

EXPRESS ESKAINTZAK!

**COMBI LG GBV21LOESW
HOZKAILUA**

599 €

- Frost ez
- 186cm-ko altuera
- 374 Litro
- Linear cooling
- Freshzone kaxoia

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte



Danobati esker, baserrietan ere, BARREN ostiraletan

Danobat Kooperatibak bi urtetarako dirulaguntza eman dio Elgoibarko Izarrari, baserrietan ere BARREN astekaria ostiraletan banatu ahal izateko.

Mila esker, Danobat.





Izan al du eraginik EUSKARALDIA ariketak zure hizkuntza-ohituretan?



**IRATI
SAN MARTIN**

"Espero ez nuen jende batek ere jantzi zuen txapa eta ilusioa egin zidan"



**PEDRO MARI
ANDONEGI**

"Txapa jantzita izan nuen egunetan, treneko bidaietan gehiago egiten genuen euskaraz"

Euskaraldiaren lehenengo edizioan 16 urte nituen. DBH4n nengoen, eta Ikastolan eman ziguten egitasmoaren berri. Ez nuen dudarik izan, eta parte hartzea erabaki nuen. Etxekoek ere parte hartu behar zuten, eta nire kuadrillakoek ere bai. Askok hitz egin zen urte hartan Euskaraldiaz, eta nire bueltan jende askok eman zuen izena. Ahobizi rola aukeratu nuen lehenengo edizio hartan, ni euskaraz bizi naizelako, baina bigarren ediziorako aldatzea erabaki nuen, eta Belarriprest izan nintzen. Ni beti naiz Ahobizi, horregatik erabaki nuen Belarriprest txapa jartzea, jendeak jakiteko entzuteko prest nengoela. Jendeari esan nahi nion euskara entzun nahi nuela eta niri egiteko euskaraz beldurrik gabe. Baina egia da txapa jantzi nuen egunetan ere ez nuela igarri jendeak euskara gehiago egiten zidanik, eta nik ere ez nituen nire ohiturak aldatu, euskaraz bizi naizelako. Hala ere, establezimenduetako langileak txapa jantzita ikustea interesgarria iruditu zitzaidan. Nik normalean beti egiten dut lehenengo hitza euskaraz, baina txapak erakusten du beste pertsonak euskara ulertzen duela. Egun haietan jendea txapa jantzita ikustea oso polita iruditu zitzaidan. Espero ez nuen jende batek ere txapa jantzi zuen eta ilusioa egin zidan euskararekiko konpromisoa zutela ikusteak. Horrelako egitasmoak antolatu behar dira euskararen alde, eta nik aurten ere hartuko dut parte. Oraingoan Ahobizi izango naiz berriro.

Euskaraldiaren berri izan nuenean ez nuen dudarik izan eta izena eman nuen. Belarriprest rola aukeratu nuen, iruditu zitzaidalako euskaraz bizi ez direnak errazago hurbilduko zitzaizkidala Ahobizi txaparekin baino. Jende ezagunak berdin-berdin hitz egingo zidala euskaraz pentsatu nuen, baina esaterako Gasteizera egunpasa joan eta ezezagun batek errazago egingo zidala euskaraz pentsatu nuen Belarriprest txaparekin. Nik euskararekiko konpromisoa hartuta daukat, baina kontzientzia hori ez daukanak niri euskaraz egiteko aproposagoa da Belarriprest. Ahobizik eman dezake euskara maila altuko pertsona naizela, eta euskaraz ondo moldatzen ez denari atzera egin diezaiokeela iruditu zitzaidan. Euskalduna izan arren, gaztelaniaz egin nituen nik ikasketak, eta gaztetan erderarako joera handia neukan. 20 bat urtera arte lagun artean dena gaztelaniaz egiten genuen. Lanean hasi nintzenean lan-giro euskalduna aurkitu nuen. Nire nagusia euskalduna zen, eta lankideak ere bai. Denek euskaraz egiten zuten lantegian, eta haiekin hasi nintzen ni ere euskaraz egiten. Buruan baneukan euskara, etxean euskaraz egiten genuelako, eta egia da hiru bat hilabetean aldatu nuela nire joera. Euskaraldiak ohitura horiek aldatzeko balio beharko luke, eta nik hurrengo edizioan ere hartuko dut parte. Belarriprest izango naiz berriro. Gogoratzen dut txapa jantzita eduki nuen egunetan, treneko bidaietan gehiago hitz egiten genuela geure artean, ezezagunak izan arren. Orain isilik joaten gara.



Angel Mari Tobajas

Araknofobia

Ez nuke jakingo esaten zeintzuk diren espeleologo baten bertute nagusiak: abentura-espirtua, mugarik gabeko jakin-mina, konstantzia, sakrifizio-espirtua... Baina gauza bat daukat argi: denek jotzen dutela ziurtzat espeleologo batek ezin duela klaustrofobiarik izan. Hala ere, eta jendeak uste ez arren, araknofobia izatea da espeleologo izan nahi duenarentzat trabarik handiena, gure kobazuloetan askotariko armiarmak eta inguruko handienak topa ditzakegulako, harrigarria irudituko zaizuen arren.

Espeleologiarekin zerikusia duten zientzien barruan, bioespeleologiak aparteko garrantzia dauka, zientzia hori ikasi ahal izateko espeleologo izan beharra baitago ia derrigor. Kobazuloetako eta leizeetako espezieak aztertzen ditu bioespeleologiak eta espezie horien artean sekula ez dira armiarmak falta; ugariak dira oso eta lehen begi kolpean ikusten ditugu gainera. Izan ere, haitzuloaren ahotik gertuen topa ditzakegun izakiak dira, sarreratik erabateko iluntasuna has ten den tarterainoko bide osoan. Distantzia hori, jakina, ez da beti berbera izaten, baina ehun bat metro baino gehiagoko distantzia ere izan daiteke kasu batzuetan.

Zomorro horiekiko fobia azaltzeko, ezin gara haien itxura itsusian bakarrik oinarritu. Izan ere, txangurroek, esaterako, ez dute horrenbesteko higuinik sortzen, nahiz eta haiek ere ez diren oso antropodo ederrak. Armiarmak ere antropodoak dira, baina araknido pozoitsuen artean sailkatuta daude, denak baitira pozoitsuak. Laburbilduz, haitzulora sartzeko ilusioa zapuztu dakiekeela askori, armiarma askotariko bankete bihurtu daitezkeela pentsatze hutsarekin. Eta horri gehitzen badiogu behin espeleologo batzuei entzun nien hura, armiarma pozoitsuek lepura salto egin zieten kontua, nekez sartuko da araknofobia duen norbait haitzulo batean. Eta ez pentsa gezurra

zenik esaten zutena, ni neu izan bainaiz horrelako jauzien lekuko, edo, hobeto esanda, horrelako erorikoen lekuko. Lurrazpiko galeria ilun eta estuetan katamarrean aurrera egiteko argia behar du espeleologoak eta kaskoari lotuta eraman ohi du. 2025az geroztik, kaskoko argia elektrikoa da, baina lehen, azetilenoko gasa erabiltzen genuen, karburozko kriseilu batek sortzen zuena, eta sugar luze bat sortzen zen piztean. Eta su hura hain gertu sentitzean, armiarmak uzkuritu eta askatu egiten ziren sabaitik. Erasotua ez da beraz, espeleologoa, baizik eta armiarma bera.

Edozein modutan, egiaztatu ahal izan duguna da gure haitzuloetan ohikoa ez den armiarma bariatatea daukagula; benetako altxor bioespeleologiko bat, apenas ikertu dena. Ozta-ozta dakigu Mendaroko Aizkoltxo kobazulo mitikoan armiarma espezie endemiko bat bizi dela ere. Eta anekdotikoa izan daiteke hori, kontuan hartuz gero gure eskualdean milatik gora kobazulo irisgarri dauzkagula lokalizatuta. Atera kontuak zenbat gehiago egon daitezkeen!

Ziurta dezakegun gauza bakarra da hain ingurune gogorrera hain ondo egokitu diren izaki harrigarri hauekin topo egiten dugunean, miresmen edo lilura halako batekin begiratzen diegula orain.



Martxoaren 26ra arteko epea dago Errigoraren 'Eskutik eskura' kanpainan eskaerak egiteko

Eskutik eskura kanpaina hasi du Errigorak, Nafarroa erdi eta hegoaldeko produktuak jatorrizko prezioan eta euskaraz etiketatuta Euskal Herri osora banatzeko kanpaina. Errigoraren webgunearen (errigora.eus) bitartez egin behar dira eskaerak, martxoaren 26a baino lehen, eta eskatutako produktuak herrian bertan jasotzeko aukera izango dugu Elgoibarren eta Mendaron, bi herrietan sortu diren batzordeei esker. Oliba-olio birjina estra, kontserbak, arrosa, pasta, lekaleak eta ardo loteak dira Errigorak kanpaina honetan eskainiko dituen produktuak, eta webgunean bertan daude ikusgai produktu guztien ezaugarriak (ekoizleak, kopuruak eta prezioak). Produktuak non eta noiz jaso behar diren aurrerago zehaztuko dute Elgoibarko eta Mendaroko herri batzordeetan lanean ari diren boluntarioek.

Elikadura burujabetza, helburu

Merkatu logika nagusiei kontra egiteko modua eskaintzen du Errigorak, elikadura burujabetzaren alde eginda. Egungo merkatu logika horrek ataka zailan jarri ditu ekoizle txiki asko gurean, eta kontsumitzaileen parte-hartzea eta kontzientzia-hartzea ezinbestekoak ikusten ditu



Errigorak, ekoizleen eta kontsumitzaileen arteko beste hartu-eman bat eta elikadura burujabetza lortzeko: Hau da, Euskal Herrian kontsumitzen ditugun elikagaiak hemen ekoiztuak izateaz gainera, elikagaien ziklo guztiaren gaineko (ekoizpena, banaketa eta kontsumoa) erabakimena ere gure eskuetan egoteko. Euskal Herria eta auzolana ditu lanabes Errigorak, Nafarroa hegoaldea dauka ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Iaz, Euskarari puzka kanpainen, 16.000 saski saldu zituzten eta 230.000 eurotik gora bideratu zituzten Ager zonaldeko euskalgintzara. Hori du ezaugarri Errigorak.

150 arbola-landare sartu dituzte Elgoibarren herriko hamar familiak 'Gure natura ezagutzen' ekimenaren baitan



Morkaiko Mendizale Elkarteak, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiaka Sailak eta Elgoibarko Baso Biziak elkarteak antolatutako *Gure natura ezagutzen* ekimenaren baitan 150 arbola landare sartu zituzten domekan. Landaketari ekin aurretik, lursailaren jabeak, Fermin Lazkanok, inguruaren gaineko azalpenak eman zizkien parte hartu zutenei (hamar familia), eta Elgoibarko ingurua eta hemen bertoko fauna eta flora hobeto ezagutzeko aukera izan zuten haiek. Martxoaren 30ean egingo dute hurrengo ekintza. Zumaiara joango dira, marear-teko fauna ezagutzera.

Makinak babesean hartzeko kanpaina jarri du martxan Makina Erremintaren Museoak




Makina erremintaren ondare historikoa babesteko asmoz, *Aita-amabitxitu makina bat* kanpaina jarri du martxan Makina Erremintaren Museoak. Kanpainan parte hartzen dutenek 100 urtetik gorako makinaren mantentze lanetan laguntzeko aukera izango dute. Modu pertsonalean parte hartzeko 20 euro ordaindu behar dira, eta enpresa moduan, berriz, 80 euro. Norberak hautatu dezake babestu nahi duen makina, eta hura olioztatzea izango da zeregina. Interesatuak museoa.eus webgunean eman dezakete izena. Bideoa: barren.eus

'Bizi-bizixa' bonu kanpainan izena emateko epea zabalik dago

Elgoibarko Udalak *Bizi-bizixa* bonu kanpaina abiarazi du, eta parte hartu nahi duten dendariak martxoaren 24ra arteko epea dute izena emateko. Izenematea elgoibar.eus webgunearen bidez egin behar da.

Kanpaina honetan 25.000 euro inbertituko ditu Udalak eta 3.332 bonu komertzial jarriko ditu herritarren eskura. Herritarrek %25eko deskontua izango dute egindako erosketetan. Gutxienez 5 euroko gastua eta gehienez 60koa egin ahal izango da. Aurreikuspenen arabera, bonuak apirilaren amaierarako egongo dira eskuragarri, eta maiatzaren 29ra arte trukatu ahal izango dira.

Edukiontzi marroiak zabaltzeko txartela erabili beharko da



Debarbareko Mankomunitateak jakinarazi duenez, hondakin organikoaren edukiontzi marroiak modu elektronikoan zabalduko dira aurrerantzeran. Elgoibarren apirilaren 7an jarriko dute indarrean sistema berria, eta Mendaron, berriz, maiatzaren 12an. Edukiontzi marroiak zabaltzeko txartel elektronikoa edo *Ireki* izeneko aplikazioa erabili beharko da. Poltsa biodegradagarriak lortzeko txartela erabiltzen dutenek etxean jasoko dute txartel berria, eta gainerakoek udalerriko erabiltzaileen arretarako bulegoetan jaso beharko dute. Mankomunitateak emandako datuen arabera, Debarbareko hondakin-bilketa selektiboaren tasa %53,2koa da gaur egun. Ekonomia Zirkularerako Hondakinaren eta Lurzoruen Legeak %55eko gutxienezko tasa ezartzen du 2025erako, eta %60koa 2030erako. Helburu horiek lortzeko asmoz egin dute aldaketa.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur Elgoibarren eta Mendaron

Gaur arratsaldean odol ateratzeak egingo dituzte Elgoibarren zein Mendaron. 16:30ean hasiko dira ateratzeak Elgoibarko Jubilatuen Biltokian, eta antolatzaileek txanda hartzeko gomendioa egin dute, 623 328 408 telefonoaren bidez. Mendaron, berriz, ikastolan egingo dituzte odol ateratzeak, 17:00etatik aurrera. 632 403 795 telefonoan hartu behar da txanda.

Elgoibarren eta Mendaron energia berdea sortzeko Ekiola proiektua laster da martxan

Elgoibarko eta Mendaroko Udalek lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten 2023ko urte hasieran Ekiola Energia Sustapenak S.L.rekin, bi herriotan plaka fotovoltaiko bidezko energia-kooperatiba bat bultzatzeko eta herritarrei beren herrian bertan ekoiztutako energia berdea eskuratzeko aukera emateko. Bi urte joan dira ordutik, baina bi udaletatik jakinarazi dute azkeneko fasean sartu dela proiektua, eta bideragarritasun fasea gaindituta, aurki izango dela martxan. Proiektua 600 bat familiarentzat bideratuta dago.

Energiaren Euskal Erakundearen eta Mon-

dragon Korporazioko KREAN ingeniartzaren arteko lankidetzaren emaitza da Ekiola. Kooperatiba eredian oinarritzen da proiektua eta honako ezaugarriak ditu: 21.129 metro koadroko azalera, urtean 2MWPko xede potentzia, urtean 2.400 MWh-ko ekoizpenarekin, eta 2.000 panel. Parte-hartzea hiru fasetan gauzatuko dute: lehenengo fasean Mendaro eta Elgoibarko herritarrek izango dute lehentasuna; bigarren fasean, Danobatgroup taldeko langileei zabalduko diete aukera; eta hirugarren fasean, instalazioaren inguruko 25 kilometroko eremuko bizilagun guztiek parte hartu ahal izango dute.

Errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina hasi dute eragileek

Elgoibarko Udalak eta Elgoibarko Izarrak *Errenta aitortpena euskaraz!* izeneko ekimenarekin bat egin dute, herritarrek errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko. Ekimen horren baitan, herriko banku erakundeei eta aholkularitza etxeei gutun bat helarazi diete euren bezeroen artean euskararen erabilera sustatu dezaten Foru Ogasunarekiko harremanetan. Izan ere, azken urteotan handituz joan da errenta aitortpena egiteko euskara hautatu duten pertsonen kopurua, baina badago zer hobetua oraindik ere: 2020an, esaterako, errenta aitortpena egitera deituta zeuden elgoibartarretatik 1.068 lagunek egin zuten euskaraz, %17,95k. Iaz, berriz, 1.199k hautatu zuten euskara, %19k.

Martxoaren 31n hasiko da errenta aitortpena Gipuzkoan.

Hiru bide daude aitortpena egiteko eta guztietan erabil daiteke euskara: autolikidazio proposamena, aitortpen mekanizatua eta internet bidezkoa. Jarraian daukazue nola aukeratu behar den euskara: Autolikidazio proposamena telefonoz edo Internetez onartzean, aitortpena euskaraz egiteko nahia adierazita; Errenta mekanizatuko bulegoan laguntzen duen langileari aitortpena euskaraz egiteko nahia adierazita, edota Foru Ogasunaren Zergabidea plataforman, errenta aitortpena euskaraz aurkeztean, euskararen aldeko hautua eginda.

Askotariko eskaintza prestatu dute martxorako Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Ekintza gehiago ere badira, baina datoren astekoak bildu ditugu hemen. Martxoaren 18rako, Landatik Gasteizera irteera antolatu dute. 08:30ean elkartuko dira tren geltokian, eta trenegingingo dute Eibarrera artekoa, han Landara eramango dituen autobusa hartzeko. Hamaitetako eta bazkaria etxetik eraman behar dute, eta Gasteizen bazkalduko dute elkarrekin. Martxoaren 19rako, berriz, *Aurretiazko borondateen dokumentua eta hiltzen laguntzeko presta-*

zioa izenburuko hitzaldia izango dute jubilatuen biltokian, 18:30ean.

Martxoaren 20rako, azkenik, xake txapelketa iragarri dute. Martxoaren 19a izango da izena emateko azken eguna. Izena eman nahi duenak astelehen eta ostiralean eman ahal izango du, 11:00etatik 12:00etara edota telefonoz 688 742 013 telefono zenbakira deituta. Irabazlea eskualdeko txapelketarako sailkatuko da.

Danobatgroupek fakturazio marka ondu du bigarren urtez jarraian, 344 milioi euro fakturatuta

Iazko balantzea eta datozen urteetako bide orria markatuko duten ildo estrategiko nagusiak aurkeztu zituen martitzen goizean Nerea Aranguren Danobatgroupeko zuzendari nagusiak Elgoibarren, Danobat kooperatiban kazetarienezako egindako gosari formatuko aurkezpenean, eta esan zuen 2024a urte historikoa izan zela berriro Danobatgroupentzat, 2023ko fakturazio errekorra ontzea lortu zuelako. 2023an baino %2 gehiago fakturatu zuten iaz, 337 milioi euro guztira, eta esportazioen zifrak %90etik gora mantendu zituzten, Danobat eta Soraluze atzerriko merkataritzako marka nagusiak izanda. Ildo beretik, 2025erako egin dituzten aurreikuspenak ere onak direla zehaztu zuen, "eskaera zorro sendoa eta proiektu interesgarriak" dituztelako esku artean, baina nabarmendu zuen ziurgabetasunez beteriko merkatuari adi egotea tokatzen dela. Igoera espero dute 2025erako, baina gehienez ere %5ekoa. Horren harira lau eragin-eremu dituztela zehaztu zuen: Berrikuntza teknologikoa, gero eta zorrotzagoak diren proiektuen erronkei aurre egiteko; zerbitzazioa; bezeroari gero eta zerbitzu azkarragoa eta pertsonalagoa emateko; dibertsifikazioa, etengabe aldatzen ari den merkatuaren eskaeretara egokitzeo; eta nazioartekotzea. Danobat kooperatibaren ekoizpen planta bisitatu aurretik eman zituen azalpenak.

Mondragon Korporazioko kide da Danobatgroup, eta makina-erremintaren eta fabrikazio aurreratuaren sektorean erreferentea nazioartean. Danobat, Soraluze eta Goimek dira bere enpresa nagusiak, nahiz badituen beste bazkide industrial eta teknologiko batzuk inguruan (Endity, Savvy, Novak eta Ideko), eta kanpoko merkatuetara zabaltzeko bokazioa du ezaugarri nagusietako bat, bezeroari soluzio integralak eta neurrirakoak eskaintzearekin batera. Datutan: 1.459 langileko taldea da (horietatik %15 emakumeak), iaz, 337 milioi euroko fakturazioa izan zuena eta sortzen duenaren %90 kanpora saltzen duena. Xehe-xehe eman zuen Arangurenek Danobatgroupen merkatu datuen berri. Iazko



datuei erreparatuta esan zuen Estatu Batuetan (%15,4), Frantzian (%5) eta Italian (%7,9) hazi egin zela Danobatgroupen presentzia, eta aldez, Alemanian (%8,5) eta Txinan (%5,8) apaldu, lurralde horietako testuinguru ekonomikoaren eta politikoaren eraginez. "Makina erreminta da lehenengo adierazlea ikusteko merkatua nola dagoen eta Alemanian egoera ez da ona", zehaztu zuen. Makina-erremintaren industriaren interes komunak ordezkatzeko dituen CECIMO Europako elkarteak emandako sektorearen behin-behineko datuek ere hori erakusten dute: makina erremintaren produkzioaren %7,5eko jaitziera European.

Estatu Batuak aipatzearekin batera etorri zen kazetarien galdera: Danobatgroupek esportatzen duenaren %15 AEBetara esportatzen duela aintzat hartuta, beldurrik ba ote duten lehiakortasunaren erronkaren harira Donald Trump AEBetako presidentea iragarri dituen muga-zergek izan dezaketen eraginagatik. Mehatxu horren aurrean Momentuan lasai daudela esan zuen Arangurenek, baina beharrezko ikusten duela European neurriak hartzea hemengo enpresen garapena babesteko.

SEKTORE AEROESPAZIALA, HAZTEN

Salmentei dagokionez, eta sektoreka aztertuta, alor aeroespazialean izan zuen igoera han-

diena (%29,9) taldeak iaz, baina oraindik ere ekipo ondasunen eta ingeniariaren orokorraren sektorea da Danobatgroupen sektore nagusia (%35,2). Nolanahi ere, beste sektore batzuetan ere izan zuen presentzia 2024an: trengintzan (%5,2), energian (%7,4) eta automobilgintzan (56,6). Berritzen jarraitzea du erronka nagusia taldeak, eta zentzu horretan aipagarria da diru sarreraren %9 baino gehiago inbertitu zuela Danobatgroupen I+G+B Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza arloan. Berrikuntza teknologikoaren alde egindako apustuan azpimarragarria da IDE-KOren jarduna. Industri fabrikazio eta produkzioarako teknologietan espezializatutako zentro teknologikoa da Ideko, Danobatgroupen partner teknologikoa. Aukerak identifikatzea eta aztertzea, produktu, negozio-lerro eta produkzio prozesuak diseinatzea eta garatzea, arazoak konpontzea, eta aholkularitza teknikoa ematea dira Idekoren egitekoak, eta bera da Danobatgroupen "berrikuntzarako motorra".

80 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKO INBERTSIOA

2024an bukatu zuen Danobatgroupen azken plan estrategikoaren lau urteko inbertsio zikloa (2021-2024), eta tarte horretan 80 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa egin zuen taldeak, Danobat, Soralue eta Goimek enpresetako azpiegiturak eta beste hobetzen. Inbertsio estrategiko horiei esker, gaur egun 52.000 metro koadroko espazioa dauka taldeak EAEn, fabrikatzeko. Gure inguru gertuan dituzten lantegiak Danobatgroupen, Osintxun, Bergaran, Itziarren eta Elgoibarren; abangoardiako instalazioak dira denak, azken belaunaldiko teknologia eta ekipoz hornitutakoak, eta eraginkortasun energetikoko neurriak ezarrita dituztenak. Dena behar dute gaur enpresek egoera geopolitikoengatik gero eta ziurgabeagoa den merkatuak planteatzen dituen erronkei aurre egiteko, baina egin dituzten inbertsio estrategikoei esker, "posizio ezin hobean" daudela zehaztu zuen Danobatgroupen zuzendari nagusiak.

2025ean, lau urteko plan estrategiko berriari ekin dio Danobat taldeak, eta Arangurenek aurreratu zuen lau ardatz nagusitan egingo dutela lan (berrikuntza teknologikoa, zerbitzazioa, dibertsifikazioa eta nazioartekotzea), beti ere adimen artifiziala, jasangarritasuna eta talentua erakartzea zehar-lerro dituztela. Horren harira zehaztu zuen kooperatiben balioekiko zintzo jokotuta egin nahi dutela aurrera. "Taldeen kooperatiboa gara eta, beraz, ez dugu alde batera utzi behar gure helburua kalitatezko enplegua sortzea eta gure ingurunearen garapen ekonomiko eta soziala bultzatzea dela oraindik ere. Uste dugu ezarritako ildo estrategikoekin hazten, berritzen eta merkatu globalean dugun posizioa sendotzen jarraitu ahal izango dugula, aldi berean, Euskadin kalitatezko enplegu kooperatiboa sortzen eta euskal gizarteari balioa ematen jarraituta"



Danobateko instalazioak, Elgoibarren.



MAURIZIEI GORAZARRE

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Gizonek okupatzen zuten plazara jauzi egin zuten emakume pandero-joleak omentzeko eguna izan zen martitzena Elgoibarren. Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolak, Ongarri zine-klubak, Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Badihardugu elkarteak 'Gure Mauriziak!' ekimena antolatu zuten emakume guzti haien omenez, eta Kalegoen plazatik Herriko Antzokira egin zuten kalejira batekin hasi zuten omenaldi-ekitaldia. Antzokian, emakume haiek izan zuten ausardia eta kemena goratu zituzten antolatzaileek, eta Elgoibarko lau maurizien etxekoei egin zieten oholtzara igotzeko gonbidapena, herritarren esker ona jasotzera, baina Martzelina Zubizarretaren ondorengoek ez zuten ekitaldira etortzerik izan. Argazki gehiago eta bideoa: barren.eus







SORKUNDE JUARISTI

JULIANA ESNAOLAREN
BILOBA

"Manuel Sodupe *Gelatxo* soinu-jolea nuen ait-titta, eta amamak panderoa jotzen zuen berarekin. Haien semeek segitu zioten gero musikaren tradizioari, eta nik gehiena osaba Pedro ezagutu nuen, besteak aurretik hil zirelako. Baina amamarekin ez naiz asko akordatzten; 11 urte nituela hil zelako, orain dela 50 urte. Baserritik kalera etorri zirenean, osabarekin bizitzen jarri zen, eta ni tarteka joaten nintzen bisitan amarekin, baina ez daukat amamaren oroitzapen askorik. Amari entzundakoak ditut gogoan. Beti entzun izan dut baserrian jai-giroa antolatzen zutela soinua eta panderoa joz, eta inguruko baserrietakoak joaten zirela bertara. Agarre baserrian bizi zen gure amama, eta amak kontatu izan dit vallejotarrak ere sarri joaten zirela kantura. Amamaren ondoren gure amak ere ikasi zuen panderoa jotzen, baina etxean bakarrik jotzen zuen; ama ez zen plazan ibili. Nik etxean beti ikusi izan dut panderoa eta gustatu izan zait, baina ez zidaten jotzen erakutsi. Gizonen kontua zen garai hartan. Gure ondorengo belaunaldiek ere ez dute pandororako joerarik ekarri. Amama-eta ausartak izan ziren, eta merezi dute omenaldia".



AITZIBER LARRAÑAGA

JULIANA ZUBIZARRETAREN
BILOBA

"Amamaren izena entzutearekin bakarrik hunkitu egiten naiz. Umetan amamarekin bizi izan nintzen baserrian, eta kalera joan ginenean ere harreman estua izan nuen berarekin. Garrantzitsua izan zen amama niretzat. Askotan esaten zidan hainbeste seme-alaba eta biloba



*Naia Carrillo, Ariana Nogales,
Aitziber Larrañaga, Maria Mendikute,
Sorkunde Juaristi, Maria Jesus Alberdi
eta Maialen Gurrutxaga,
Herriko Antzokian egindako ekitaldian.*

edukita inork ez ziola panderoari heldu eta nik ikasi behar nuela. Ni naiz biloben artean gazteena, eta egia da umetatik ekarri nuela pandororako zaletasuna. Amama konturatu zen panderoari heltzen niola eta ahal zuen guztia egin zuen nik panderoa jotzen ikas nezan. Lehenengo amamarekin hasi nintzen eta 6 urte nituela trititixa eskolan eman nuen izena, zabaletarrekin. Eskolara sartu nintzenerako baneukan oinarria hartuta, amamak irakatsi zidalako. Amamak asko jotzen zuen panderoa, bai etxeko ospakizunetan eta baita plazetan ere. Omenaldiak ere egin zizkieten, eta gogoratzen naiz Azpeitian egin zioten baten ni ere igo nintzela oholtzara berarekin jotzera eta ilusio handia egin ziola. Gure ezkontzan ere amamak panderoa jo zuen eta oso polita izan zen niretzat. Pozik hartu dugu omenaldi hau ere, eta seguru amama bizi balitz ere gustura hartuko zukeela. Oso ausarta izan zen, eta gizonezkoen artean bere lekua egitea lortu zuen. Merezi dute omenaldi hau".



MARIA JESUS ALBERDI

PANTXIKA ZUBIZARRETAREN
BILOBA

"Amama gurekin bizi izan zen hil arte, eta oroitzen askotan panderoarekin ikusten dut. Berak kontatzen zuen behin Parisera joan zela pandero lehiaketa batera eta irabazi egin zuela. Ez dakit irabazi zuen edo ez, baina berak hala kontatzen zuen, eta opari modura gramola bat eman ziotela. Gramola hori etxean daukagu oraindik. Ganbaran egon da urte pila batean ahaztuta, eta ez dakit funtzionatzen duen, baina bilobari esan diot martxan jartzeko. Pariseraino eramanean zuen amamak panderoa!. Aittittak eta aitak soinua jotzen zuten, eta gure etxean beti geneukan musika. Gabonak

zirela, jaunartzeren bat zela, bataioren bat... ospakizunak etxean egiten genituen eta beti geneukan alaitasuna trikiti doinuekin. Nire aitak ere ez zuen aitzaki handirik behar izaten soinua ateratzeko. Platertxo koilaratxoarekin jota edo *Anis las cadenas* botila koilararekin jota ere egiten zuen musika. 21 urte nituela hil zen amama, eta pena daukat apenas daukadalako haren erretraturik. Ur handiek hartu zuten gure etxea eta argazki pila bat galdu genituen. Amama panderoarekin oroitzen dut beti. Barrutia jatetxera Sigmako nagusiak joaten ziren garai hartan eta amama Pantxikari esaten zioten askotan panderoa jotzera joateko, bazkaria alaitzeko. Oso alaia zen, eta asko maite genuen. Pozik hartu dugu omenaldia".

JEXUX AIZPURUA

MARTZELINA ZUBIZARRETAREN BILOBA

(Argazkian Martzelina Zubizarreta)

"Amandrea zen Martzelina guretzat. Hemen amama esaten da, baina berak amandrea zela esaten zigun, Elgoibar aldeko hitza edo izango da. Oso emakume gogorra zen, ausarta, bizia... eta bizi-tzan kolpe asko hartutakoa. Gerra denboran herritik bidali zuten, lau seme-alabarekin, tartean nire amarekin. Durangoko bonbardaketa ere bizi izan zuen, eta etxera itzultzean ere egoera zaila aurkitu zuen. Baina emakume indartsua zen eta edozein lan hartzen zuen familia aurrera ateratzeko. Hori dena pasata ere, oso alaia zen, umoretsua. Umore bizia zeukan, oso berezia. Ospakizunetan beti hartzen zuen panderoa eta kantuan jartzen ginen guztiok. Gurean kanturik ez zen inoiz falta izan. Amandreak panderoa berotzen zuen sukaldeko ekonomika zahararren gainean, eta larrua tira-tira eginda jartzen zuen, soinu fin-fina ateratzeko. Panderoa ez zen gaur egungoa modukoa: estuagoa zen eta hiru txintzarri bakarrik zituen. Bere kabuz ikasi zuen jotzen, eta oso ondo jotzen zuen. Pena daukat ondorengo belaunaldikook ez dugulako panderoa jotzen ikasi, baina dagoeneko berandu da".




BORROKA FEMINISTA, PLAZARA

✍️ Ainhoa Andonegi 📷 Mikel Askazibar 🗣️ Ainara Argoitia

Martxoaren 8a borroka eguna dela azpimarratu zuten Elgoibarren eta Mendaron zapatuan, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekintzetan. Autodefentsa tailerrak, mobilizazioak eta kultur ekintzak izan genituen, kontzertuak, antzerki emanaldiak, emakumeen erresistentziei oihartzuna emateko hitzaldiak eta emakume erreferenteen ekarpenari balioa emateko ginkana, besteak beste: **barren.eus**

ELGOIBAR







MENDARO





Bertso-saioarekin hasiko dute gaur Mendaron Motxaila asteburua

Motxaila asteburua izango dute gaur has- ten dugun hau Mendaron, udaberrian sartze- ar gaudela ospatzeko asteburua. Gaur hasiko dituzte ospakizunak, Motxaila Elkar- teak Udalaren laguntzarekin gauerako antolatu duen bertso-saioarekin. San Agustin kultur- gunean izango da saioa, 22:00etan, eta sarrerak salgai daude, 8 euroan. Morroskillo dendan eta Aitzbeltz tabernan eskuratu ahal izan dira gaur artean, baina azkeneko aleak kultur- guneko atar- ian jarriko dituzte salgai gaur. Lau dira aurten kantura gonbidatu dituzten bertsolariak: Nerea Ibartzabal, Jone Uria, Joanes Illarregi eta Julio Soto, eta Ainhoa Urbieta mendaroarra ariko da gaiak jartzen. Saioan Mendaroko bertso eskolako ikasleek ere parte hartuko dutela aurreratu dute antolatzaileek. Iaz bezala, Gelatik Plazara sariket- an parte hartu berri iritsiko dira herriko bert- solari gazteak gaurko saiora, atzo izan baitzuten eskualdeko bertso eskoletako ikasleek kanpora- keta-saioa, Mendaron.

Biharko egun osoko egitaraua antolatu dute. Goizean, Aitzbeltz kobazulora igoko dira oinez, 09:00etan Gaztetxetik abiatuta, eta antolatzaile- lek praka luzeak eta mendirako oinetakoak eramateko gomendioa egin dute. Kobazuloan, ipuin kontaketa saioa, poesia emanaldia eta



abar izango dituzte, 11:00etatik aurrera. Inma Mugertza hidrogeologo elgoibartarrak Lurpea Garbi Elkartearen inguruan ere hitz egingo du, eta hangoak amaituta, Gaztetxera jaitsiko dira gero, bazkaltzera. Mendian izan direnek fronto- toiko aldagelak erabiltzeko aukera izango dute, eta bazkaria 15:00etan izango da. Bazkaloste- rako, Manex Astigarragaren bakarrizketa saioa iragarri dute eta 18:30ean kalejira hasiko dute Patxangoi elektrotzarangarekin. Gauean, ber- riz, Desein taldeak kontzertua emango du Gaztetxean, 22:30etik aurrera, eta luzatuko dute gero jai Txola ta Potxola disko-jartzaile mendaroarrek.

'Nortasun agiria', Zuhaitz Gurrutxaga umoregile elgoibartarraren azken lana

Nortasun Agiria estreinatuko du martxoaren 20an Zuhaitz Gurrutxaga umoregile elgoibarta- rrek, Donostian, Reale Arenako Keler espazioan. Hirugarren bakarkako lana du honako hau eta aurrekoetan bezala, bizipen pertsonaletan oi- narrituta osatu du kontakizuna. Besteak beste bikote erlazio haustura batek sortutako minaz, euskaldun ona izatera iristea zein den zailaz, edota TOC (Nahasmendu Obsesibo Konpultsi- bo) nahasmendua pairatzeak sexu harreman- etan eragin ditzakeen buruhausteez ariko da oholtzan. Bakarrizketa iragartzeko kartelean Gu- rrutxaga bera ageri da, eta atzean bere sorleku- ko, Aiastiako, argazki bat, zeinean artistaren aita eta aitxitxa ikus daitezkeen Aiastiako plazan.



Bere nortasunaren hainbat ezaugarri erakusten dituzten irudiak ere ageri dira kartelean.

Elgoibaren, maiatzaren 30ean emango du ba- karrizketa, Herriko Antzokian.

Luciano Ruiz-Poveda margolaria hil da

Luciano Ruiz-Poveda margolaria (Elgoibar, 1931) hil zen domekan, Madrilen, 93 urterekin. 1931n jaio zen Luciano, Elgoibarren, eta haurra zela, Frantziara eraman zuten, 36ko ger-raren testuinguruan. CNTko milizianoa zuen aita eta Elgoibartik Bilbora ihes egin zuen familiak. Habana ontzian bidali zuten anai-arrebekin batera, eta Parisen George Galpère doktore errusiar-raren familiak jaso zuen, komunismoaren alde Frantziara propaganda egitera jua zenarenak. Familia hark eragin handia izan zuen Luciano umearengan. Elgoibarrera itzuli zenean, margo-tzeari ekin zion eta Arte eta Ofizioen Eskolan hasi zen marrazketa eskolak hartzen.

Ezkonberritan, Madrilera (Espainia) joan zen gero, eta han grafista lanak egin zituen. Gran Vian zeuden zine-aretoetarako filmen kartelak egiten aritu zen, eta gerora, Madrilgo gau giroko erretratuak egin zituen. Handik urte batzuetara, Parisera itzuli zen berriro, eta izen handiko margolari bihurtu zen. Denboraldi luzeak igaro zituen



Montmartren, eta harremanak egin zituen beste artista batzuekin. Han eta hemen hainbat erakusketa egin ostean, 1962an, arte galeria propioa ireki zuen Madrilgo Castellana Hilton hotelean. Han, pertsonaia ospetsuen erretratuak egin ahal izan zituen, Omar Sharif-enak edo Stephen Boyd-enak, esaterako. Geroago, Madrilgo Meliá Princesa hotelean zabaldu zuen beste arte galeria bat, eta, 1976an, Claudio Coello kalean ireki zuen gaur egun oraindik zabalik dagoen galeria. 1971n beste galeria bat ireki zuen Zarautzen. Jarduera artistiko handia izan zuen bertan, baina osasun arazoak tarteko, itxi egin zuen 2017an. Ez zion, hala ere, margotzeari laga.

'Amak' antzezlanak emango dute gaur, barikua, Herriko Antzokian



Elena Diazek idatzi eta Begonia Bilbaok zuzendutako obra da *Amak*, komedia estilokoa. Eskola bateko itxarongelan harrapatuta dauden lau emakumeren istorio etsigarria da. Gelan harrapatuta egotean barruak askatzen hasiko dira eta terapeutikoa suertatuko zaie. Amatasunaren alderdi onak eta txarrak azaleratuko dituzte. Lau dira oholtzan arituko diren aktoreak: Iraitz Lizarraga, Tania Fornieles, Oihana Maritorea eta Intza Alkain. 19:00etan emango dute, Elgoibarko Herriko Antzokian.

60 bat lagun, Aner Peritz eta Kattalin Minerren arteko berbaldian



Genero arauak hausten dituzten bi gorputz parez pare, taberna giroan, askotariko gaiez solasean. Horixe izan zen *Arrakala*, Kattalin Minerrek eta Aner Peritzek eguaztenean Kultur Etxeko Sotoan izan zuten berbaldia. Euren jardun osoa euskaraz egin duten bi lagun, transfeminismoaz eta gorputzak gurutzatzen dituzten zapalkuntzez, Martxoaren 8az eta "ihes egindako" borrokez, euskara zikintzeko legitimitateaz eta legitimitate ezaz aritu ziren, besteak beste. Aurki bidean, barren.eus-en.

Skaterrak eta dragoia Maalan izan dira irabazle, BARRENEKO inauterietako argazki lehiaketan



BARRENEK argazki lehiaketak baditu irabazleak: Publikoak Birakauterietako dragoia Maalan dagoen argazkia aukeratu du. Joserra Cabrerak ateratako argazkia da eta 951 boto jaso ditu. Errigorak emandako oterra jasoko du saritzat. Epaimahaiak, bestalde, Lore Bereziartuak bidalitako *Skaterrak* argazkia aukeratu du. Arrazoen artean protagonisten jarrera, mozorroaren

paperean sartzeko gaitasuna, argazkia ateratzeko aukeratutako tokia eta mozorroa bera prestatzeko erabilitako jantziak aipatu dituzte. Danobatek emandako oparia jaso dute saritzat: Abatetxe landetxean bi lagunentzako gaua eta gosaria.

36 argazki bidali dituzte herritarrek lehiaketa-
ra. Eskerrik asko modu batean edo bestean parte hartu duzuen guztioi.

Kilometroetako denda zabaldu dute, arropa berriekin



Elgoibar Ikastolako arduradunek atzo zabaldu zuten Kilometroetako denda udaberri-uda denboraldirako arropa berriekin. Errosario kaleko 25. zenbakian dago denda, lehen Lizzie arropa denda egon zen lekuan. Ostegun eta ostiralean arratsaldean (17:00-20:00) zabalduko dute, eta zapatuetan goizez (10:00-13:00). Kilometroak jaia Elgoibarren egingo da aurten, urriaren 5ean.

Sanbartolomeetako egitarauen azalen erakusketa, Kultur Kafean

Datorren domekatik aurrera San Bartolome jaietako egitarauen azalen erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Kafean. Gorka Alonso eta Idoia Ortegak 1943. urtetik gaur egunera arteko egitarau guztiak dituzte gordeta, pandemia urteetakoak izan ezik. Martxoaren 25era arte egongo da ikusgai erakusketa, taberna ordutegian.

Ander Larraburu nafarrak irabazi du kadeteen Mendaroko txirrindulari lasterketa

Ander Larraburu Hernandorena (Erro y Ergui-Arga Carretilla) gailendu zen domekan Mendaron jokatu zuten kadeteen mailako IV. Mendaro Herria txirrindulari lasterketan. 199 txirrindulariko tropela abiatu zen Herriko Enparantzatik, baina aurretik minutu bateko isilunea gorde zuten, joan zen astelehenean Usurbilen, Bizkarreko zubi ondoan, istripuz hil zen Iñaki Ba-kea Arsuaga txirrindularia oroitzeko. Lasterketan zehar hainbat ihesaldi izan baziren ere, esprinean erabaki zen. Larraburu izan zen tropelburuko azkarrena, kadete mailako pistako Espainiako Kopa irabazi berri duen 15 urteko txirrindulari sunbilla-llarra. Larrabururen atzetik sartu ziren Peio Legina (F2 Informatica) eta Unai Aranburu (Inoxcra-Beasain). Taldeka, Erro y Ergui-Arga Carretilla taldekoak izan ziren nagusi. Elgoibarko Lagun



Taldeko zazpi kadetek ere hartu zuten parte denboraldiko bigarren lasterketan. Zazpi horietako lau estreinakoz aritu ziren Mendaro Herria lasterketan, tartean bi mendaroar: Oier Arriola eta Enaitz Iraolagoitia. Tropel nagusian sartu ziren guztiak helmugan.

31 txirrindularirekin hasi du denboraldia Elgoibarko Lagun Taldeak



Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolak duela bi asteburu hasi zuen errepideko denboraldia, eta osatu duten taldea aurkezteko ekitaldia egin zuten joan zen barikuan Azkoitian, babesle

duen Bernardo Ecenarro (BESA) enpresan. 31 txirrindularik osatzen dute taldea: bederatzita juniorrek, zazpi kadetek, sei infantilek, lau aleb-inek eta bost benjaminek.

Ane Agirregomezkortak zazpigarren postua lortu du Espainiako Txapelketan, 60 metroko proban

Gazte mailako pista estaliko Espainiako Atletismo Txapelketa jokatu zuten joan zen asteburuan Salamancan, eta emaitza bikainak eskuratu zituen Mintxeta taldeko esprinter Ane Agirregomezkorta Garciak, 60 metroko proban. Agirregomezkorta Euskadiko Txapelketa irabazita sailkatu zen 20 urtez azpikoan Espainiako Atletismo Txapelketarako. Finalerdietara sailkatzea eta bere marka pertsonala ontzea nahi zituen elgoibartarrak, eta lortu zuen bere buruari jarritako bi erronkak gauzatzea. "Pista estaliko denboraldian 60 metrokoan zentratu naiz, asko gustatzen zaidalako eta irteeran ondo moldatzen naizelako. Espainiako txapelketan lehiatzekoak ginen 32 esprinterren artetik 11. denborarik onena nenez, finalurrekoetara sailkatzea zen nire buruari jarri nion helburua, baina lasterketa hauetan ezin da akatsik egin eta sekula ez da jakiten", azaldu du. Hiru lasterketa jokatu zituen, eta hiruretan ondu zuen ordura arte zuen marka pertsonala (07.72). Lehenik bere seriean: 07.71ko denborarekin bigarren postua lortu zuen eta finalurrekoetarako sailkatu zen. Finalerdietako kanporaketan ere ondu zuen Agirregomezkortak bere marka, 07.66ko denborarekin, eta laugarren eginda final han-



dirako sailkatu zen. Finalean zortzi atletarik onenak lehiatu ziren eta batek izan ezik gainerako guztiek zuten elgoibartarrak baino marka hobea distantzia honetan. Zazpigarren postuan sailkatu zen Agirregomezkorta, seigarren egin zuen Nuria Muntanerren denbora berarekin: 07.69.



Binakako Txapelketa Nagusiko pilota partida jokatuko dute domekan Elgoibarren

16 pilotari ari dira parte hartzen ia bost hilabete iraungo duen emakumeen Binakako Txapelketa Nagusian, eta Elgoibarren itxiko dute ligaxka, domekan 12:00etatik aurrera. Ibarrola-Osese eta Arraiza-Gamindek jokatuko dute elkarren aurka, Ikastolako frontoian. Aurrez, promesa mailako neurketan lehiatuko da June Urrutikoetxeak eta Amaia Zarrabeitiak osatutako bikotea, Edurne Carreterok eta Petra Rodriguezek osatutakoaren aurka. Iaz ere jokatu zituzten Emakume Master Cup txapelketako finalerdiak Elgoibarren, harmailak jendez beteta zirela.

Borobila izan da Pilota Egunaren 25. ekitaldia

Pilota Egunaren 25. edizioa antolatu zuen Elgoibar Ikastolak joan zen zapaturako. Goizean goizetik, jolasak, tailerrak eta pilota partidak izan ziren Kalegoen plazan, Ikastolako pilotalekuan eta Sigmakoan. Izan ere, Kilometroak jaia Elgoibarren ospatuko den bezala, 25. ekitaldi hau berezia izan da. Hitzpasa jolasean parte hartzeko aukera ere izan zuten familiek, esaterako, eta pilotak egiteko tailerrak ere izan ziren. Otero pilotagileak pilotak saltzeko postua ere jarri zuten plazan, eta tonbola ere antolatu zuten ikastolakoek, pilotarekin zerikusia duen materiala zozkatzeko: pilotarien kamisetak, sinatutako pilotak, eskumuturrekoak, pilotak e.a. Pilota Egunean ohikoak diren pilota finalak jokatu zituzten ikasleek, eta amaieran helduentzako barru saioa ere izan zen. (Argazki gehiago eta bideoa barren.eus-en).



LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. **612 540 008**

Garbiketa lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. **642 180 611**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 20 urteko esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **641 317 864**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest nago. Titulua eta esperientzia handia ditut. **613 410 007**

GARAJEAK

Auto handi bat sartzeko garaje itxi baten bila ari gara, San Frantzisko kalean edo inguruan. Ahal dela, erosteko. Deitu 16:30etatik aurrera. **637 185 940 (16:30etik aurrera).**

BESTELAKOAK

Baratze txiki bat ipini nahi duzu? Mendian egoteko txoko bat edukitzea gustatuko al litzaizuke? Mendaron lurzoru txiki bat dugu. Gustora ustiatuko bazenu ipini gurekin harremanetan. **652 735 489**

Toletxe kaleko etxebizitza bateko balkoian batoi bat agertu da, granate eta txuri kolorekoa. Udaltzaingoan laga dugu.

Txakur-kumeak oparitzen dira. Border Collie eta arratoi txakur mezkla. **687 447 836**



Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.


Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€. Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Recursos Humanos</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosapf@telefonica.net</p>	<p>Etxejabe batek, bizilagunen batzordean sartzen denean, hitz egiteko eta botoa emateko aukera izan dezake?</p> <p>Nire ustez, bizilagun batek, batzarra hasita dagoenean sartuz gero, zerrendako gaietatik jadanik landuta daudenei buruzko bere iritzia eta botoa emateko aukera galduak izango ditu. Etxejaberen bat batzarrerara berandu iristeak ez du atzera eraginezko ondorioirik izango bileran dauden gainontzeko etxejabeek hartutako erabakietan, are gehiago bere botoak gehiengo baldintzatu eta bozkatutakoa aldatu badu. Kasu horretan legezkoa da landutako gaiak berriro irekitzeari uko egitea, beraz, etxejabe horrek ez du eskubiderik izango bozketa berriz egitea eskatzeko. Egoera horretan aurreko gaien erabakien emaitzak jakintzat joko dira, beraz, ez zaio propio eman behar emaitza berri. Gainera akordioak inpugnatu ahal izango ditu, bere iritzia azaldu ez eta bozketan parte hartu ez duelako, eta bileran izan ez dela kontuan hartuko da.</p> <p>Ondorioak: Bilerara iritsi eta oraindik eztabaidatu eta bozkatu gabeko zerrendako gaietan askatasunez parte hartzeko aukera izango du etxejabeak. Berandu izan arren bilerara bete-betean sartuko da, beraz, ez diote boto eskubidea mugatu edo ukatuko. Etxejaberen batek bilera aurrera doan bitartean alde eginez gero, bileran zegoen bitartean emandako botoak baliozkoak izango dira, ez, ordea, joan ondoren hitz egindako gaien buruzkoak joan egin dela kontuan hartuko baita.</p> <p>ASOCIACIÓN GOAR AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
--	--



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Gaur 10 urte, **Anike!** Familia guztiaren partez, zorionak, maitea. Asko maite zaitugu.




Zorionak, **Marren!** 10 tirakada belarrietatik! Gozatu zure eguna.



Zorionak, **ama-amama,** maitea. Gure familiako bihotza eta argia.



Zorionak, **June!** Bihar 10 urte handi! Gurasoen eta familiako denon partez, muxu handi bat.



Gure udaberriko larrosak datorren astelehenean 13 urte zoragarri. Zorionak, **June,** etxekoan partez.



Zorionak, **Ibai!** Bihar 4 urte! Oso ondo ospatu! Patxo potolo bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Maddi** eta **June,** asteazkenean 11 urte bete zenituztelako. Asko maite zaituztegu.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



KONTSULTATEGIA

Masailezurreko minez esnatzen al zara?

Goizetan, esnatu ondoren, mina sentitzea ohikoa da. Patologia horri bruxismo esaten zaio, hau da, mandibula modu inkoszientean estutzea eta hortzak karraskatzea, hortzen higadura eraginez.

Hainbat ikerketak erakutsi dutenez, bruxismoa pertsona bakoitzaren egoera emozionalarekin lotuta dago, eta, beraz, antsietatea edo estresa duten pertsonak joera handiagoa dute patologia hori izateko.

Bruxismoari aurre egiteko hainbat tratamendu daude, hala nola deskarga-ferula, hortzetan lesiorik ez izateko. Tratamendu honen helburua hortzen artean kontaktu zarririk ez egotea da.

Joan zaitez zure konfiantzako dentistarengana edozein molestia edo zalantza duzunean.



ALDAZ HORTZ KLINIKA
San Bartolome, 22 - 20870 Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

14 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea, Elgoibarren. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

17:00 Odol ateratzeak, Mendaron. Ikastolan.

19:00 Antzerkia: 'Amak'. Txalo Produkzioak taldeak taularatuko du, Herriko Antzokian.

22:00 'Zerua motxailen aterpe' bertso saioa, Mendaron, Motxaila Elkarteak Udalaren laguntzarekin antolatuta: Julio Soto, Nerea Ibartzabal, Jone Uria eta Joanes Illarregi. Mendaroko San Agustin kulturgunean. Sarrerak 8 euroan salgai, han bertan.

15 ZAPATUA

09:00 Emakumeen mendi martxa. Kalegoen plazatik.

16 DOMEKA

10:00 Dultzaineroen diana.

12:00 Pilota: Master Laboral Kutxako binako finalerdia. Ikastolako frontoian.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua, Herriko Antzokian. Zuzendaria: Juanma Saez Etxabe.

1. *Stonage* (Sara Galiana). *Welcome to the stonage. Sabal, the sabertooth.*

2. *Three celtic dances* (Brian Balmages)

3. *Triumphal overture* (Anne McGinty).

4. *A tribute to Amy Winehouse*. (Arr. P. Kleine).

5. *Stachel* (Amparo Edo).

19 EGUAZTENA

17:30 Hitzaldia: 'Gure sentimenduak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko'. Treba Gurasoak egitasmoaren barruan, Miren Rosek emango du saioa. Doan. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

18:30 Aurretizko borondateen dokumentua eta hiltzeko laguntza ematea. Olaia Arana Alvareze-kin, Jubilatuen Biltokian.

19:00 Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

20 EGUENA

19:00 Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

19:30 Epeletan literatura tailerra. Gotzon Garaite Udal Liburutegian.

21 BARIKUA

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia. Lilan.

MOTXAILA EGUNA Mendaro

15 ZAPATUA

09:00 Aitzbeltz kobazulora irteera, Gaztetxetik.

11:00 Aitzbeltz kobazuloan, poesia emanaldia, musika eta hamaiketakoa.

15:00 Bazkaria, Gaztetxean.

17:30 Manex Astigarragaren bakarrizketa.

18:30 Patxangoi eletrotxarangarekin kalejira.

22:30 Desein taldearen kontzertua, Gaztetxean. Ondoren, Txola ta Potxola disko-jar-tzaileen saioa.

Zinea Herriko Antzokian

'Bridget Jones'

15 zapatua: 19:00 / 22:15

16 domeka: 19:00

17 astelehena: 21:00

'Polican'

16 domeka: 16:30

'Amal' (Ongarri zinekluba)

19 eguaztena: 21:00

2025eko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

MARTXOA

14 BARIKUA

■ Fernandez

15 ZAPATUA

Yudego

16 DOMEKA

Yudego

17 ASTELEHENA

■ Oruesagasti

18 MARTITZENA

Barrenetxea

19 EGUAZTENA

■ Soto

20 EGUENA

Garitaonandia

21 BARIKUA

Arriola

2025 urte guztian, gaez:

Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)

943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Soto
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384



Ceferina Diez Gonzalez


2025ek martxoaren 11n hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Erasio Melgosa Puente

2025eko martxoaren 11n hil zen, 93 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.***



Justo Juaristi Larrañaga

"Artaso"

***Gure ondotik joan zara,
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.***

2025eko martxoaren 6an hil zen, 81 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



X. URTEURRENA

Patxi Ajubita Ayesta

† 2015-03-16

***Gugan beti.
Maite zaitugu.***

Etxekoak





Nagore Cancio del Pino





San Roke kalea, 20
Elgoibar

**TEXTIL HOGAR
NEURRIRA EGINDAKO
GORTINAK ETA ESTOREAK.
OIHALETAN AUKERA ZABALA.
ZATOSZ ETA ESKATU AURREKONTUAI!**

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Tchintchin
AUDIO

**BIGARREN AUDIFONO
PAREA 1€ GEHIAGO
ORDAINDUTA***

ZURETZAT EDO NAHI DUZUNARENTZAT HILABETE HONETAN BAKARRIK

*kusi baldintzak entzumen-zentroan edo audiologia-afflelou.es-en. Urte osoan balio du. 1/25 erregistro-zenbakia.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10
ELGOIBAR • 943 74 37 34**

ALAINAFFLELOU
Óptica y Audiología

Eskatu txanda
audiologia.afflelou.es




Infomaitemindu →

Bidali

ALTA 747 444 777

zenbakira eta jaso
Gipuzkoa eta
Foru Aldundiari
buruzko informazio
garrantzitsuena.



GIPUZKOA
Foru Aldundia



Gaurkoa egun garrantzitsua da Alire Estetikan. Duela 17 urte zabaldu zuten edergintza zentroa Leire Pageik eta Alicia Modregok

eta orduz geroztik etengabe aritu dira lanean, bai eta formakuntza saioak jasotzen ere. Kalitatezko zerbitzua ematen dute, mimo handiz zaindua. Orain, gainera, APP berria daukate, bezeroei erraztasun guztiak emateko.



“APP berria daukagu, bezeroei erraztasun guztiak emateko.”

► **Etengabeko berrikuntzan ari zarete Alire Estetikan, eta 17.urteurrenarekin batera zuen app propioa sortu duzue. Konta iezaguzue, zer topatu dezakegu bertan? Zein da izango duen erabilera?**

Aplikazio berri hau bezeroen behar bati erantzuteko sortu genuen; Haien erosotasunean eta erraztasunean pentsatu genuen sortzeko orduan. Mila ardura ditugu denok ere, eta askotan txanda hartzeko dei bat egitea edo zentrorra etortzea bera ere ezinezkoa egiten zaigu. Orain, aplikazioaren bitartez, eguneko 24 orduetan eta asteko zazpi egunetan hartu ahal izango duzue txanda, zentroko ordutegiari begira egon beharrik gabe. Horrez gain, gure zerbitzu eta produktu guztien berri izateko aukera ere izango duzue, eskaintza edo sustapen berezien informazioa ere jaso daitekeelako aplikaziotik. Gainera, txandaz ez ahazteko gogorarazpenak ere jasoko dituzue app bidez. Oso aplikazio eroso eta erabilgarria da.

► **Nola egin behar da aplikazio bidez txanda hartzeko?**

Oso erraza da! Sakelako telefono guztiek izaten duten aplikazio-dendan topatu ahal izango duzue, eta edozein sistema eragiletan deskargatu, izan Apple edo Android. Telefonora deskargatu ondoren, erregistratu egin behar zarete, esperientzia pertsonalizatuko eta hartu dituzuen txandetara sartzeko.

Behin erregistratu ondoren, Alire estetikan ditugun tratamendu guztien zerrenda bistaratuko zaizue telefonoan, eta behar duzuen/ dituzuen tratamendu(k) aukeratu eta etiketara etortzeko eguna eta ordua aukeratu ahal izango dituzue.

Azken pausoa erreseba baieztatzea da. Hori egin, eta kitto! Edozein lekutatik eta edozein ordutan, zain egon beharrik gabe, zuei ondoen datorkizuen txanda hartu ahal izango duzue.

► **Laburbilduz, zeintzuk dira Alire estetikaren aplikazioan topatuko ditugun abantailak?**

- Gure zerbitzu eta sustapen eksklusiboak azkar eta erraz eskuratzeko aukera izango duzu.
- Txandak kudeatzea zure eskura geratzen da, deirik egin beharrik gabe, eta zain egon beharrik gabe.
- Gogorarazpen automatikoak jasoko dituzu eskuko telefonoan, hurrengo txandak ez ahazteko.
- Segurtasuna eta pribatutasuna bermatuta dituzu.

Erreserbatzeko prest? Deskargatu orain gure aplikazioa, eta ikusi zein eroso den Alire estetikan erreserba egitea. Oparitu zure buruari merezi duzun zaintza!




Topatu hemen aplikazioa:

Alire estetikaren urtemuga ospatzeko

ZOKETA!

Aurpegiko tratamendua, The cure, garbiketa sakona.

PARTE HARTZEKO:

- Gure instagrameko kontua segi:  #alireestetika
- Lagun bat etiketatu
- Historietan instagrameko post-a elkarbanatu.